



A K T A

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2003ko uztailaren 17a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 19:30

BERTARATUAK: **Alkatea**
Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, EAJ-PNV eta EA alderdi politikoak bi talde politiko ezberdin gisa eratzea.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal funtzionamendurako barne araudiaren aldaketa
- 3.- Onartzea, egoki bada, Alkatearen proposamena Udal honetan Gobernu Batzordea eratzeko.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Alkatearen proposamena batzorde informatzaile iraunkorrak eratzeari buruz eta horien osaketari buruz.



- 5.- Onartzea, egoki bada, Alkatearen proposamena Udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoari buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarreko ordezkarien izendapena ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
- 7.- Alkateak hartutako erabakien berri ematea hainbat izendapeni buruz: Alkateordeak, Gobernu Batzordekideak, Batzorde Informatzaile iraunkorren buruak eta dagozkion delegazioak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hondartza AIU3-ko UE 3.1. eremuko udal jabetzako partzelen salmenta arautuko duten Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboak, lehiaketa publikoaren bidez.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jai eguna 2004 urterako.
- 10.- Ahalmen zabala ematea, egoki bada, Orioko Alkate-Presidenteari 4.1.13. —Anibarko Portua— eremuan kokatuta dauden udal garajeak saltzeko.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Alkatearen proposamena 2003. urtean 91.973 euroko diru kopurua izendatzeko aurtengo EBPNren kudeaketa planaren gastuetarako.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ-PNV ETA EA ALDERDI POLITIKOAK BI TALDE POLITIKO EZBERDIN GISA ERATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 10 boto: Arruabarrena (EAJ), Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez (PSE-EE)]:

ONARTZEA EAJ-PNV eta EA alderdi politikoak bi talde politiko ezberdin gisa eratzea.

Jesus Rodriguezek hartzen du hitza eta adierazten dio Udalbatzarrari kontuan hartzeko PSE-EE/PSOE alderdi politikoa ere udal talde politiko gisa eratzen dela, pertsona bakarraren partehartzearekin.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUDIAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/07/17

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA udal funtzionamendurako barne araudiaren aldaketa. Onartutako barne araudi berriak honela dio, hitzez hitz:

UDALAREN BARNE ARAUDIA

UDALBATZARRAK

Udalbatzarrak hilero egingo du ohiko bilkura, hilaren azken asteartean, arratsaldeko 7etan.

Salbuespenak egiterakoan, alderdi guztien onespenearekin izango da, eta arrazoi pertsonalek berdín balio izango dute udal ordezkari guztientzat.

Gaiaren garrantziak hala eskatuta eta udal talde batek hala eskatuta, Ezohiko Udalbatzarrak deitzeko konpromisoa hartu behar da. Ezohiko Udalbatzarrak Alkateak deituko ditu izaera horrekin, bere ekimenez edo udal ordezkariak duten alderdi politikoetako edozein zinegotzik hala eskatzen badu. Eskabide hori idatziz egin beharko da, udalbatzarraren deialdia zerk eragin duen azalduz, eta idatzia sinatuz.

Udalbatzakideek eskatutako ezohiko bilkuraren deialdia lau eguneko epearen barruan egin beharko da, eskaera egin den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Udalbatzarra ez da, inola ere, hamabost egun baino gehiago atzeratuko.

Ohiko bilkurarako deialdia hileko azken Gobernu Batzordeko bilkuran adostuko da udal taldeen artean.

Ohiko bilkurarako deialdia bi lanegun lehenago banatuko da, gutxienez

Gai zerrendan, aldez aurretik diktaminatu, informatu eta dagokion batzorde informatzailean kontsultapean jarritako gaiak bakarrik sar daitezke (mozioak dira salbuespenak). 72 ordu lehenago banatuko da gai zerrenda.

Gai zerrendako gaiei buruzko agiri guztiak deialdiaren egun berean egon behar dute udalbatzakide guztien eskura.

Batzarraren bilkurak jendaurrekoak dira, Idazkaritzak, bilkura egin baino bi lanegun lehenago gutxienez, haren berri emango die herritarrei herriko ohiko komunikabideen bitartez eta herrian jarriko diren informazio taulen bitartez.

EZTABAIDAK

Udalbatzarraren bilkura hasi ondoren, aurreko bilkurako akta onartuko da.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/07/17

Edozein zinegotzik eskatu ahal izango du, eztabaida garaian, gai-zerrendan sartutako gairen bat kentzea eta bertan agiriak edo informeak sartzea, eta baita gaia mahai gainean geratzea, eztabaida hurrengo bilkurarako utziz. Udalbatzakideen gehiengo soilak eskariaren aldeko botoa ematen badu, ez da gai hori eztabaidatu eta bozkatu beharrik izango. ROF erregelamenduak arautzen duen bezala egingo da.

Udalbatzarrera bildu den jendeak parte hartu ahal izango du aurretiaz presidenteari hitza eskatu ondoren. Udalbatzarra hasi aurretik gai zerrenda irakurriko da; ondoren, galdetuko da inork galderarik egin nahi duen puntu horiei buruz.

MOZIOAK

Mozio bat eguneko gai zerrendan sartzeko, zinegotzi batek eskatu egin beharko du, eta udalbatzarraren bilkura egin baino 72 ordu lehenago aurkeztuko da.

Hala ere, herriko edozein erakunde, entitate edo biztanlek aurkeztu ahal izango ditu mozioak, Udalbatzarraren gai zerrendan sartzeko. Mozio horiek Udalbatzarrean eztabaidatuko dira zuzenean, edo, bestela, batzorde informatzaile batean diktaminatuko dira aurrena.

Mozioaren edukiaren jakinarazpena; proposamenaren egileak mozioaren edukia jakinarazi beharko die udalbatzakide guztiei, bi laneguneko aurrerapenez gutxienik, eta, premiazko ezohiko udalbatzakak direnean, deialdia egiten den unean.

GOBERNU BATZORDEA

Gobernu Batzordeko bilkuren aztergai zerrenda eta aurreko bilkurako aktaren zirriborroaren kopia bidaliko zaie Udaleko talde politiko guztiei.

Aztergai zerrenda bi laneguneko aurrerapenez banatuko da gutxienez.

Edozein zinegotzik parte har dezake bilkuretan.

Gobernu Batzordea honela osatuta egongo da: alkatea, EAJko bi ordezkari eta EAKo ordezkari bat.

Gobernu Batzordean alkate dekretuen berri emango da.

BATZORDE INFORMATZAILEAK

Batzorde informatzaileek, egiten duten lehenengo bilkuran, bere bileren erregimena ezarriko dute eta horrek indarrean jarraituko du aldatzea erabakitzen ez den bitartean



Batzorde bakoitzaren osaketa udaleko talde politikoen artean dagoen proportzionaltasunaren arabera izango da; hau da, talde bakoitzak lortu duen zinegotzi kopuruaren arabera.

Edozein zinegotzi joan daiteke batzorde informatzaileen bileretara.

Batzordeak irekiak izango dira herritar guztientzat. Bertan parte hartzeko eskubidea izango dute bai zinegotziek, eta baita batzordeburuari propio eta aldez aurretik parte hartzea eskatzen dioten kolektiboek eta herritarrek ere. Kolektibo eta herritar horiek idatziz aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskaria, beren izenak eta parte hartzeko arrazoiak azalduz. Batzordeburuak ahalmena izango du irekitasuna bideratzeko. Udal batzordeak indartzearen ardura izango du Udalak.

Inongo batzordek ezin izango du besteren eskumeneko gaiak buruz eztabaidatu. Alkatearen esku izango da bideratzea non jorratuko diren gaiak.

Batzorde bakoitzeko buruari dagokio gai zerrenda prestatzea.

Zinegotziek gai zerrendan edozein gai sartzea eskatu ahal izango dute.

Gutxienik bi lanegunetako aurrerapenez egingo da deialdia eta batzordekideei eta hala eskatzen duten herritarrei banatuko zaie gai zerrenda.

Batzorde informatzaileek egindako bilkura guztien aktak egingo dira eta bertako idazkariak izenpetuko ditu.

Akta batzordekideei eta hala eskatzen duten zinegotzi eta herritarrei banatuko zaie. Akten arduraduna batzordeburua izango da.

Batzorde informatzaileetan hartutako diktamenak dagokion gobernu organora zuzenduko dira. Gaiak bereziak direnean, pasa daitezke Plenora, batzordeak Gobernu Batzordera bidali baditu ere, Gobernu Batzordeari hala egitea egoki iruditzen bazaio.

HERRITARREN ESKUHARTZEA

Udalbatzak ahalik eta informaziorik zabalena eskainiko du bere jarduerari buruz eta herritar guztiek udaleko bizitzan izan dezaketen esku hartzeari buruz.

Administrazioaren Prozedurako Legearen arabera, herritar guztiek eskubidea izango dute udal erabakien eta beren aurrerakinen kopiak eskuratzeko eta artxibategi eta erregistroak kontsultatzeko. Idazkariari dagokio erabakitzea, legeak arautzen duen bezala, zer informazio mota eskuratu ahal izango duten herritarrek.



Edozein herritarrek udal ondasun eta eskubideak zaintzeko beharrezko diren ekintzak aurrera eramatea eska diezaioke udal administrazioari.

Udal administrazioak, herritarren interes orokor eta sektorialak babesteko, elkarleen garapena bultzatuko du, horien jarduerari buruz ahalik eta informazio zabalena emango die herritarrei eta, ahal duen neurrian, baliabide publikoez baliatzeko aukera eta dirulaguntzak eskainiko dizkie.

ERREFERENDUMAK EDO HERRI KONTSULTAK

Gaiaren garrantziak hala agintzen duenean, Udal Plenoan hala erabakiz gero eta herriko biztanleen kopuru nabarmen batek hala eskatuz gero (boto emaleen %30), erreferendumak edo herri kontsultak egiteko konpromisoa hartuko du Udalak. Herri kontsulta bidezko erabakia errespetatu eta beteko du Udalak. Plenoan erabakiko da.

INFORMAZIO ESKUBIDEA

Bai zinegotziek eta bai herritarrek ere (dagokion gaiari buruz), udalean aztertzen den edozein gaiari buruz informazioa edukitzeko eskubidea daukate, legeak posibilitatzen duenaren arabera. Intimitatea eta abar gorde egin behar da.

Udalaren edozein organoren bilera egin aurretik, landuko diren gaiei dagokien informazio eta dokumentazio guztia jasoko da. Hori bost egun aurretik jaso beharko da, gutxienez. Aurrez eskatuko behar da.

Udalean dagoen edozein informazio eskuratzeko, idatzizko eskaria egin behar da.

Udal burokraziak sortzen dituen eragozpenak suntsitu egin behar dira.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA UDAL HONETAN GOBERNU BATZORDEA ERATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA Alkatearen proposamena Udal honetan Gobernu Batzordea eratzeko.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak hartzen du hitza eta Udalbatzarrari proposatzen dio ondoko sei batzorde informatzaile iraunkorrek eratzea:

- Hazienda eta Pertsonaleko batzordea.
- Hirigintza, Zerbitzu eta Ingurumen batzordea.
- Obra, Nekazaritza eta Arrantza batzordea.
- Kirola, Gazteria eta Festetako batzordea.
- Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordea.
- Gizarte Ongizate, Enplegu, Sustapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza eta Senidetzeetako batzordea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA alkatearen proposamena, goian aipatutako sei batzorde informatzaile iraunkorrek eratzeko.

Aldi berean, Udalbatzarrak **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Batzordeak, beraz, honela osatuta geratuko dira:

Hazienda eta Pertsonaleko batzordea.

Titularrak: Andoni Sarasua Oliden (EAJ), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ), eta Elena Legarra Alfaro (EA).

Hirigintza, Zerbitzu eta Ingurumen batzordea.

Titularrak: Eneko Olariaga Arruti (EAJ), Elena Legarra Alfaro (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Martxiel Genoba Solaberrieta (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).



Obra, Nekazaritza eta Arrantza batzordea.

Titularrak: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ), Elena Legarra Alfaro (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Mari Jose San Sebastian Aranburu (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).

Kirola, Gazteria eta Festetako batzordea.

Titularrak: Eugenio Cotado Iturain (EA), Martxiel Genoba Solaberrieta (EAJ), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Elena Legarra Alfaro (EA), eta Mari Jose San Sebastian Aranburu (EAJ).

Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordea.

Titularrak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Aurora Azkue Mujika (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Eneko Olariaga Arruti (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).

Gizarte Ongizate, Enplegu, Sustapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza eta Senidetzeetako batzordea.

Titularrak: Elena Legarra Alfaro (EA), Andoni Sarasua Oliden (EAJ), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Eugenio Cotado Iturain (EA) eta Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ).

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA UDALBATZARREKO KIDEEEN ERREGIMEN EKONOMIKOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA Alkatearen proposamena Udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoari buruz. Erregimen ekonomiko berriak honela dio, hitzez hitz:

UDALBATZARRAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

Udalak egoki funtziona dezan eta udalbatzakideek beren betebeharrak modu egokian bete ahal izan ditzaten, honako erregimen ekonomiko hau onartzen da.



Alkatea. Alkatea liberatua izango da, dedikazio osoarekin (EUFALEBAko 30. maila).

Bi zinegotzi dedikazio erdiko liberazioarekin (EUFALEBAko 30. maila - % 15 /2): Eneko Olariaga Arruti (EAJ) eta Elena Legarra Alfaro (EA).

Alderdi politikoak. Ondoko diru kopuruak izendatuko zaizkie alderdi politikoei:

Talde politiko bakoitzari 150 euro hilean.

Zinegotzi bakoitzeko 60 euro hilean.

Batzorde informatzaileetako buruak: 240 euro/hileko.

Beste zinegotziak: 180 euro/hileko.

Plenoko bilkuretan parte hartzeagatik: 30 euro/bilkurako, zinegotzi liberatuak izan ezik.

Gobernu Batzordeko bilkuretan parte hartzeagatik: 30 euro/bilkurako, zinegotzi liberatuak izan ezik.

Udal gestioak egiterakoan sortutako gastuak horretarako dagoen eredia erabiliz justifikatuko dira.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATU GUZTIETAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 10 boto: Arruabarrena (EAJ), Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez (PSE-EE)]:

1.- Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ) eta Eneko Olariaga Arruti (EAJ) **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkarteko batzorde exekutiboko kide, Orioko Udalaren ordezkari gisa.

2.- Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ) **IZENDATZEA** Urola Kostako Mendi Nekazaritza elkartean (URKOMEn) Orioko Udalaren ordezkari izateko.

3.- Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ) **IZENDATZEA** Gipuzkoako Ur Kontsorzioan Orioko Udalaren ordezkari titular izateko, eta Eneko Olariaga Arruti (EAJ) **IZENDATZEA** ordezkari ordezeko izateko.



4.- Elena Legarra Alfaro (EA) **IZENDATZEA** Euskal Fondoaren Batzar Orokorrean Orioko Udalaren ordezkari izateko.

5.- Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari, Udalak ordezkaritza behar duen gainerako organo kolegiatuetan.

7.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA HAINBAT IZENDAPENI BURUZ: ALKATEORDEAK, GOBERNU BATZORDEKIDEAK, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN BURUAK ETA DAGOZKION DELEGAZIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta alkateak egindako izendapenen berri ematen du:

Alkateordeak

Lehen alkateordea: Eneko Olariaga Arruti (EAJ).

Bigarren alkateordea: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ).

Hirugarren alkateordea: Elena Legarra Alfaro (EA).

Gobernu Batzordeko kideak

Mirari Arruabarrena Elizalde (EAJ), Eneko Olariaga Arruti (EAJ), Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ), eta Elena Legarra Alfaro (EA).

Batzorde informatzaileetako buruak

Hazienda eta Pertsonaleko batzordea: Andoni Sarasua Oliden (EAJ)

Hirigintza, Zerbitzu eta Ingurumen batzordea: Eneko Olariaga Arruti (EAJ)

Obra, Nekazaritza eta Arrantza batzordea: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ)

Kirola, Gazteria eta Festetako batzordea: Eugenio Cotado Iturain (EA)

Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordea: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ)

Gizarte Ongizate, Enplegu, Sustapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza eta senidetzeetako batzordea: Elena Legarra Alfaro (EA).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.



8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZA AIU3-KO UE 3.1. EREMUKO UDAL JABETZAKO PARTZELEN SALMENTA ARAUTUKO DUTEN PLEGU BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK, LEHIAKETA PUBLIKOAREN BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Zerbitzu eta Ingurumeneko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 10 boto: Arruabarrena (EAJ), Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez (PSE-EE)]:

ONARTZEA Orioko Hondartza AIU3-ko UE 3.1. eremuko udal jabetzako partzelen salmenta arautuko duten Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboak, lehiaketa publikoaren bidez.

Noemi Ostolazak hartzen du hitza eta adierazten du Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboak erdaraz bakarrik jaso dituela eta hurrengo baterako eskatuko lukeela euskaraz aurkeztea.

Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboen laburpena honako hau da, hitzez hitz:

1. Erakunde adjudikatzailea:

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

2. Kontratuaren helburua:

Lehiaketa honen helburua sei finkaren besterentze bateratu eta bereiztezina da. Sei finkak, lehiaketa honen ondorioetarako higiezin bakar baten gisa konfiguratuta dudenak, Lurraren Ondare Publikoaren barruan daude eta ondare-ondasun gisa sailkatuta daude Orioko Udalaren Ondasunen Udal Inbentarioan. Finka horien deskripzioa Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orrian jasota dago eta bertan zehazten dira aplikatu beharreko arau urbanistikoak, muga eta karga urbanistikoak, zortasunak eta aprobetxamendu urbanistikoak.

3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.



4. *Lizitazioaren gutxieneko kopurua:*

8.796.146,50 euro (BEZa kanpo). Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5. *Garantiak:*

Behin-behinekoa: 204.070,60 euro.

Behin-betikoa: Partzelen salneurriaren % 4.

6. *Iragarki gastuak:*

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. *Agiriak jasotzeko:*

Espedienteko dokumentazio administratiboa Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan aztertu ahal izango da.

8. *Eskaintzak aurkezteko:*

a) *Epea:* 60 egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) *Aurkeztu behar diren agiriak:* Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) *Aurkezteko tokia:* Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

9. *Eskaintzen irekiera:*

a) *Tokia:* Orioko Udaletxea.

b) *Eguna:* Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren ondorengo bigarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

c) *Ordua:* Eguerdiko 12:00etan.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAI EGUNA 2004 URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):



1.- ONARTZEA Orioko herriko jai eguna 2004. urterako San Pedro eguna izatea, ekainaren 29a.

2.- Erabaki honen **BERRI EMATEA** Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

10.- AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO ALKATE-PRESIDENTEARI 4.1.13. —ANIBARKO PORTUA— EREMUAN KOKATUTA DAUDEN UDAL GARAJEAK SALTZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

AHALMEN ZABALA EMATEA Orioko Alkate-Presidenteari 4.1.13. —Anibarko Portua— eremuan kokatuta dauden 14., 15., 18. eta 19. zenbakidun udal garajeak saltzeko.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA 2003. URTEAN 91.973 EUROKO DIRU KOPURUA IZENDATZEKO AURTENGO EBPN-REN KUDEAKETA PLANAREN GASTUETARAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA Alkatearen proposamena 2003. urtean 91.973 euroko diru kopurua izendatzeko aurtengo EBPN-ren kudeaketa planaren gastuetarako. Diru kopuru horren zati bat (85.336 euro) Udalak dagoeneko onartuta daukan 2003ko aurrekontu propioaren kontura finantzatzeko da. Gainerakoa (6.637 euro) Kreditua Aldatzeko Espediente baten bidez finantzatzeko du Udalak.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/07/17